



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

SENTIMENDUAK, BERDINTASUNEZ SENTITU

2

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 4

1 SENTIMENDUAK: NIK SENTITZEN DUT; ZUK, NESKA, SENTITZEN DUZU; ZUK, MUTILA, SENTITZEN DUZU... ALA EZ?

Gure ikasleak bizitzen ari diren hazkundera era berezi batean islatzen da sentimenduetan. Lehendabiziko unitate didaktikoaren gidan jaso genituen adin honetako hainbat ezaugarri eta aurkikuntza berri. Beraien artean hauek aipatu ditzakegu: ziurtasunik eza, konfidantza, apaltasuna, beldurra, enpatia, eta abar.



Gakoa berriz, ikasle neskek eta ikasle mutilek sentimendu berri horiek sentitzeko, erakusteko eta kudeatzeko aukera eta baldintza berberak dituzten jakitean datza. Hots, nesken “sentitu ahal dut” edo “sentitzen dut” hori mutilen “sentitzen dut” horren pareko den ala ezberdinak diren eta, horrela balitz, zergatik diren ezberdinak. Hau da, nesken “sentitzen dut” horrek mutilenaren eduki eta garapen berberak dituen, eta gizartean baimen eta onarpen berberak dituen.

Eskolako eskarmentuak ez dela horrela esaten digu. Gehienetan, gizarteak, familiak eta eskolak berak uste dute neskek eta mutilek ez dituztela sentimendu horiek era berean landu eta garatu behar. Beraz, neskenentzat “berezkoak” eta “egokiak” deritzogun sentimenduen esperientzia, ikasketa eta garapen aurrean semaforo gorria jartzen diegu mutilei (sentsibilitatea, samurtasuna, enpatia, poza, maitasuna, lasaitasuna, lotsa, beldurra...).



Eta alderantziz, mutilentzat “berezkoak” eta “egokiak” deritzogun sentimenduen esperientzia, ikasketa eta garapenen aurrean semaforo gorria jartzen diegu neskei (agresibitatea, adorea, sumindura, harrotasuna, baikortasuna, amorrua, jeloskortasuna, gogobetetasuna, urduritasuna...).

“Mutilek ez dute negarrik egiten” eta “neskak askoz sentiberagoak dira”:

Bi esaldi hauek neska eta mutilak emozionalki hezitzen dituzten gizartearen genero aginteak eta itzaropenak ordezkatu eta laburtzen dituzte. Hau da: neskengandik espero dena eta mutilengandik espero dena. Honen ondorioz, negar egiten ez duten edota hain sentibera ez diren neskak eta, bereziki, negar egiten duten eta sentiberagoak diren mutilek zailtasun handiak dituzte gure gizartean, ez baitute betetzen gizarteak, konturatu edo konturatu gabe, inplizitoki edo esplizitoki, bere sexuari ezarri dion genero eredua.

Sentimendudun izakiak izanik, sentimenduak izan eta sentitzearen aldetik, **mutilak neskak bezain sentimendudunak dira**, noski. Ez da egia neskek sentimendu gehiago edota sentimendu berberak indartsuago sentitzen dituztenik. “Neskak sentiberagoak dira” esaten dugunean, neskek sentimendu batzuk mutilek baino gehiago erakusten eta azaltzen dituztela esaten ari gara. Hau da: mutilei sentimendu batzuk mozarrotzen, gordetzen, eskutatzen... erakusten zaiela. Neskek erakusteko baimena duten sentimendu batzuk hain zuzen ere: samurtasuna, maitasuna, lasaitasuna, eskuzabaltasuna...

Eta alderantziz. **Ez da egia neskek euren sentimendu guztiak adierazi eta azaldu dezaketarik.** Gizartearen genero aginduaren arabera ez dago ondo ikusia eta ez da onargarria neskek ondoko sentimenduak kaleratzea: sumindura, gorrotoa, harrotasuna, urduritasuna, jakinmina, adorea, agresibitatea... Mutilengan espero, ulertu, onartu baimendu eta baloratzen diren sentimenduak hain zuzen ere.

Modu honetan, sentimendu “maskulinoak” eta sentimendu “femeninoak” definitzen dira, **neskentzat sentitzeko eredu bat eta mutilentzat beste bat markatzen dira**. “Neska izateko” era bat eta “mutila izateko” beste bat eraikitzen dira euren identitate eta bizimoduan baita euren roletan eta euren familiarreko, laneko eta gizartereko harremanetan ere.

2 HELBURUA: GUK, NESKEK ETA MUTILEK, SENTITZEN DUGU; HAI EK, NESKEK ETA MUTILEK, SENTITZEN DUTE

Unitate didaktiko honen helburua hau da: neskek eta mutilek “sentitzen dut” bizi eta adieraztean modu berberean egin dezatela, onarpen eta laguntza berberarekin, errespetu eta balio berberarekin. Horretarako, unitateak hau lortu nahi du: **ikasleek, bai neskek zein mutilek, euren sentimendu guztiak ezagutu ditzatela eta adierazten eta kudeatzen ikasi dezatela**, bere sexuarentzat desegokia edota ezinezkoa delakoan inongo sentimendurik baztertu edo ito gabe, ez neskek eta ez mutilek.

Ikasle neska eta ikasle mutil bakoitzaren sentimenduen ezagutza eta errespetu handiagoa lortu nahi ditugu. Horrek ahalbideratuko die neska eta mutilei euren buruak hobeto ezagutu eta baliotzeko, beste pertsonak ere hobeto ulertu eta onartzeko, garapen emozionala pertsonala eta orekatuagoa izan eta, ondorioz, autoestimua eta enpatia handiagoak lortzeko bidea.

Semaforo berdeak neska eta mutilentzat:


Unitate didaktiko honek zera lortu nahi du: ikasle neska-mutilek gizartean sexu bakoitzari sentitzeko jartzen zaizkion semaforo gorriak aurkitu, aztertu eta itzali ditzatela. **Aurkitu, aztertu eta aldatu** ditzatela mutilek, mutilak izateagatik, sentitu "ezin" dituzten gauzak (samurtasuna, esker ona, lasaitasuna...). Aurkitu, aztertu eta aldatu ditzatela neskek, neskek izateagatik, sentitu "ezin" dituzten gauzak (adorea, harrotasuna, jakinmina...). Semaforo gorriak ikusten eta aurkitzen ikasi dezatela, itzali eta horien ordean semaforo berdeak pizteko.



Semaforo gorriak, maiz, **eguneroko gauza txikiak dira** (hitzak, begiradak, ohartxoak, keinuak, barreak...) eta, sarritan, ohartu gabe piztu edo mantentzen ditugu, inkontzienteki eta automatikoki genero estereotipoak indartzen ditugularik. Semaforo horiek ikusteko nahita egin behar den azterketa eta kontzientzia behar da, formazio egokia eta ikusteko nahi eta ahalegina.

Bestalde, bigarren unitate honek beste helburu hau ere badu: **ikasleak, sentimenduak sentitzen dituen pertsonengan eta ingurukoengan duten eraginaz jabetzen hasi daitezela.**

Hau da, ez dela berdin sentitzea ala ez sentitzea, sentitzen dena adieraztea ala ez adieraztea, sentimenduen morroia izatea ala sentimenduak kudeatzea. Ez dela berdin, ez sentitzen duenarentzat ezta ere bere ingurukoentzat. Honek sentimenduak erantzukizunez kudeatzea eskatzen digu, era positiboan bai albokoentzat eta bai guretzat.



Unitatearen helburu zehatzak:

- Gure ikasle neskek eta mutilek euren sentimenduei buruz, eta ondorioz euren buruei buruz, duten **esperientzia, ezagupena eta balorazioa ezagutu**.
- Neskek eta mutilek euren sentimenduei buruz duten ezagutzan eta balorazioan **ezberdintasunak dauden ala ez aztertu**.
- **“Nesken” sentimendutzat eta “mutilen” sentimendutzat dituzten sentimenduak identifikatu** eta alderantziz, neskentzat edota mutilentzat egokitzat ez dituztenak. Semaforo gorri hauek aztertu eta aldatu.
- Ikasle neskek eta ikasle mutilek euren sentimenduei buruz **barneratuta dituzten semaforo berdeak identifikatu**, aztertu eta edozein mutil edo neskentzako balio dutela landu, euren buruei sentitzeko baimena eman diezaieten.
- **Norberaren “sentitzen dut” bat eraiki, bakoitzaren esperientzia eta bizipenetik** abiatuz eta ez mutila edo neska izatetik.
- **Neskek eta mutilek sentimenduak dituztela eta berdin sentitzen dutela esperimentatu**, bizipenetan eta esperientzietan egon daitezkeen ezberdintasunak norbanakoak direla aztertuz eta ez sexuaren arabekoak.
- Bai neska eta bai mutilentzat **sentimenduak ezagutu, izena jarri eta adieraztea ona eta beharrezkoa dela esperimentatu**.
- **Sentitzen ikasi**. Sentimenduak trebatu, aztertu, partekatu... Sentitzeko ikasi beharra dago.
- **Berdintasunez sentitu**. Hau da, sexua kontuan hartu gabe, neska eta mutil bakoitzaren sentimenduak errespetatu eta onartu.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



SENTIMENDUAK, BERDINTASUNEZ SENTITU

2 UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 5

3 UNITATEKO MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honetako materialak hauek dira:

1. “Bero eta Hotz” ipuina.
2. “Sentimenduen altxorra” mahai jolasa.
3. Ikaslearen koaderno.
4. Familiaren koaderno.




Lehendabiziko bi materialak, **ipuina eta jolasa**, koaderno biak baino lehenago erabili behar dira. Material hauek ikasleek, jolastuz, egoera ezberdinak esperimentatu, sentitu eta bizitzeko dira, galderak, hausnarketak, elkarrizketak, eztabaidak... piztu ditzaketen egoerak hain zuzen. Beraien eginbeharra da argipean eta mahai gainean jartzea eguneroko bizipen eta errealite ohartugabeak, berdintasunaren eta giza eskubideen begiradapean esplizitatu eta aztertzeko.

Koadernoak, berriz, bizipen, eztabaida eta hausnarketak laburtzeko eta barneratzeko tresnak dira, eskolan egindako lana sendotu, finkatu eta familia giroan zabaltzeko. **Ikaslearen koaderno** ikasgelan landu eta egiteko da. Irakasleak talde handi edo txikietan aurkeztu, azaldu eta landu beharko du lehenengo, gero ikasle bakoitzak berea bete dezan.

Familiaren koaderno unitatea bukatzen ari denean bidali behar da etxera, hiruhileko bukaera aldera. Irakasleak aurkeztu eta, etxeko laguntzarekin zer egin beharko duten azaldu beharko die ikasleei koaderno bidali aurretik. Koadernoak ez du izan nahi ondo egina berriro ekarri behar den ohizko etxekolana. Eskolan egin den lana familian ezagutu, hitz egin, hausnartu eta sendotzeko gonbidapena da.

4 “BERO ETA HOTZ” IPUINA



Unitate didaktikoaren CD-Romean dago. Erabilera metodologiko ezberdinak egiteko **ondorengo formatu eta artxiboetan aurkezten da:**


1. Audioa. Iraupena: 09:45 minutu.
2. Abestia. Audioa. Iraupena: 00:23 minutu.
3. Ipuina osorik. Power Point aurkezpena (PPT): irudiak, marrazkiak, audioarekin lotuta testurik gabe. Pasa automatikoa. Iraupena: 9:50 minutu.
4. Ipuinaren irudiak. PPT aurkezpena irudiekin bakarrik, audio eta testurik gabe. Eskuz pasa behar da.
5. Irudiak testu laburrarekin. PPT aurkezpena irudi eta testu laburtuarekin, audiorik gabe. Eskuz pasa behar da.
6. Irudiak, testurik gabe. Inprimatzeko PDFa.
7. Irudiak testu laburrarekin. Inprimatzeko PDFa.
8. Irudiak testu osoarekin. Inprimatzeko PDFa.

Ipuinak neska eta mutil baten abentura kontatzen du, euren ezaugarri emozionalengatik Bero eta Hotz izenekoak. Protagonista biak programako sei unitate didaktikoetan zehar gurekin dagoen **gure ikasleen adineko** ikaskide taldearen partaide dira.

Ipuin honek adin honetako neska-mutilen gustu narratiboak jaso nahi ditu: akzioa, misterioa, errepikapenak, hitz jokoak, umorea, errimak, kanta... Horregatik, **funtzio nagusia betetzen duen abesti bat** dago, pertsonaiak, ipuina eta unitatearen gaia laburtzen duen kanta.

Helburuak:

Ipuina **Berdinland** izeneko herrialdean gertatzen da, gizon eta emakumeen berdintasunaren ikuspegitik eredu positiboak (semaforo berdeak) eskeiniko dizkigun herrialdea. Maiz, gure inguruko ohizko egoera estereotipatuaren alternatiba izango diren egoerak eta ereduak izango dira. Ipuin honetan, adibidez, orokorrean “nesken” sentimendutzat jotzen diren sentimenduak dituzten mutilak daude eta, alderantziz, “mutilen” sentimendutzat jotzen diren sentimenduak dituzten neskek ere bai.



Ipuinak **emozionalki ezaugarri oso ezberdinak dituzten neska eta mutil baten istorioa** kontatzen du. Biek **elkar lagunduko dute euren sentimenduak ezagutzen eta kudeatzen** eta, ondorioz, beste neska-mutilekin harreman hobegoak izango dituzte.

Bai Berok bai Hotzek zailtasun handiak dituzte beste ikaskideekin harreman onak izateko, bataren enpatia faltagatik eta bestearen gehiegizko sentiberotasunagatik. Lagunek ez dute **Bero** ulertzen hau sentiberogia delako eta sentimendu horiek kontrolatzen ez dituelako. Sentitzen dituen sentimenduek etenik gabeko gora-behera daramate, jarrera kontrajarriak hartuz eta, bukaeran, blokeatuz eta itoz. **Hotzek**, berriz, ez ditu ulertzen ez bere sentimenduak ezta besteenak eta, ondorioz, harreman eta komunikazioa arazoak ditu. Ez du ulertzen sentimenduei buruz besteek esaten diotena eta enpatia falta du.

Pertsonai biek **elkar laguntzea lortzen dute** beste ikaskide batzuen laguntzarekin. Hauekin biziko dituzten egoera, bizipen eta elkarrizketei esker, ondoko pausuak emango dituzte:

- **Norberaren sentimenduak ezagutu** eta izena jartzeak une bakoitzean sentitzen dutena jakiten laguntzen die.
- **Euren sentimenduak adierazi**, erakutsi eta komunikatzeak laguntzen die hobeto sentitzen eta euren burua hobeto ezagutzen eta ulertzen.
- Sentimenduak **ikaskideekin alderatu eta partekatzeak** laguntzen die sentimenduak hobeto kudeatzen eta elkarren arteko komunikazioa eta harremanak hobetzen.

Beraz, pertsonai nagusiek sentitzen, sentimenduak adierazten, autoestimua eta harremanak hobetzen ikasten dute **bakoitzari gertatu, bizi eta sentitzen duenetik abiatu**rik, ez neskentzat eta mutilentzat ezarritako genero ereduan oinarrituta. Apaltasuna, zintzotasuna, komunikazioa, onarpena eta errespetuan oinarrituz ikasten dute. Bakoitzak bere sentimenduak eta besteenak ezagutu, onartu eta errespetatu.



Ariketak:

Ordena hau jarraituz landu daiteke ipuina:

1. Audioa entzun eta ahozko ulermena landu.
2. Ipuin osoarekin, irudiak eta audioa dituen aurkezpenarekin, ulermena eta mintzamena landu.
3. Soilik irudiak dituen aurkezpena eta PDFarekin denboralizazioak eta ahozko kontaketa landu.
4. Irakurmena eta idazmena landu testuak eta irudiak dituzten aurkezpen eta PDF-ekin, neskamutilen mailaren arabera testu osoa edo laburtua erabiliz.

Ariketa guzti horiek **berdintasunaren ikuspegitik sakondu** beharko lirateke, ondorengo galderen laguntzaz:

- Zer egiten zaie arraro, zer gustatu zaie gehien edo gutxien, zer iruditu zaie euren errealitatetik oso urruti, zer da sinesgarria, zer da sinesgaitza, zergatik, eta abar.
- Horrelako neskak al daude? Zergatik? Eta horrelako mutilak? Zergatik? Hitz egiten dugu gure sentimenduei buruz? Zergatik? Aldatu daiteke hori?
- Zergatik sentitzen eta esaten du hori? Mutila delako? Neska delako? Neska guztiak horrela sentitzen dute? Ez daude neska ezberdinak? Mutil guztiak berdin sentitzen dute? Ez daude mutil ezberdinak? Zergatik?

1. Ipuinaren audioa entzun eta...:

- Ipuinari, pertsonaiei, istorioari, erreakzioei, elkarrizketei, sentimenduei... buruz galderak egin. Ea beraiek horrelako sentimenduak izan dituzten. Ea nola sentitu diren ipuina entzuterakoan...
- Gure inguruan antzeko pertsonak bilatu. Adierazten dituzten sentimenduak eta inguruan sortarazten dituenak aztertu.
- Ipuinaren istorioa laburtu. Istorio osoa kontatu. Ipuina antzeztu.
- Kanta ikasi. Dantza bat asmatu kantari. Hitzak aldatu. Beste zati bat asmatu.

2. Ipuina osorik (irudiak eta audioa) ikusi eta entzun eta, aurreko atalekoaz gain:

- Zein pertsonaiekin identifikatzen da ikasle bakoitza? Zergatik?
- Pertsonaiak deskribatu, marraztu, imitatu, antzeztu. Pertsonai bat aukeratu eta hori bezala jokatu denbora batez. Pertsonai bat aukeratu eta besteek berari elkarrizketa egin.
- Gehien gustatu, harritu, desatsegindu... dituen zatia kontatu, marraztu, antzeztu... eta esan zergatik.

3. Erabili testurik eta audiorik gabeko irudien aurkezpena edo PDFa inprimatu eta...:

- Irudiak arbelean kokatu ipuinaren ordena jarraituz. Irudiren bat edo batzuk kendu eta istorioa berregin dezatela.
- Irudiak jarraituz istorioa ozenki kontatu.
- Irudiak nahastu eta ikasleen artean banatu ondoren, bakoitzak berea erakutsi eta bere zatia kontatu dezala bere txanda dela uste duenean.
- Beste ordena batean kokatu eta beste istorio bat kontatu. Ipuin originalarekin alderatu.
- Marrazkiak neurri txikian eman, beraiek ebaki eta itsatsiz komikia egin dezatela.

4. Testua duten irudiekin irakurketa eta idazketa:

- Irakurri, hitzak azpimarratu, zatiak buruz ikasi, kopiatu, esaldietan hutsuneak bete hitz egokia erabiliz, laburtu, sinonimoak bilatu, antonimoak, errimak, onomatopeiak, eta abar.





EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

SENTIMENDUAK, BERDINTASUNEZ SENTITU

2

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 6

5

“SENTIMENDUEN ALTXORRA” MAHAI JOLASA

Bi jolas dinamika erabil daitekeen mahai jolasa da. Osagai hauek ditu:

- **Lau (4) karta edo kateto baraja.** Ikasleekin jolasteko lau talde egin ahal izateko. Jolas saio bakoitzean baraja (eduki) batekin jolastu ahal izateko.
- Baraja bakoitza bereizteko, karten aurrekaldean kolore ezberdineko zenbaki bat dago: 1 berdea, 2 gorria, 3 urdina eta 4 morea.
- **Baraja bakoitzak hemezortzi (18) karta** ditu, bederatzi kartetako (bederatzi sentimendu) bi multzotan (neskak eta mutilak). Beraz, sentimendu bakoitza bi bider errepikatzen da, neska baten irudiarekin eta mutil batenarekin.
- Baraja guztiek atzekalde berbera daramate, baraja bakar batekin edo batzuekin batera jolastu ahal izateko.

Helburuak:

Baraja bakoitzean bederatzi sentimendu jaso dira, bai neska batez eta bai mutil batez irudikatuta:

1. baraja (zenbaki berdea): nazka, gorrotoa, jakinmina, poza, itxaropena, lasaitasuna, beldurra, harridura eta agresibitatea.
2. baraja (zenbaki gorria): bihozmina, errua, tristura, adorea, zorientasuna, sumindura, kezka, harrotasuna eta jeloskortasuna.



3. baraja (zenbaki urdina): baikortasuna, larritasuna, lotsa, samurtasuna, nahigabea, etsipena, ezintasuna, amorrua eta esker ona.
4. baraja (zenbaki morea): maitasuna, errukia, eskuzabaltasuna, inbidia, antsietatea, umorea, gogobetetzea, ziurtasunik eza eta urduritasuna.

Helburu nagusia hau da: sentimendu ezberdinak ezagutu eta guztiak bai neska batez eta bai mutil batez irudikatzea, **sentimendu bakoitzaren ezaugarriak azertu eta sentimenduak ez direla ez "mutilenak" eta ez "neskenak" biziartzea:**

- Zer sentitzen da ziurtasun eza sentitzen denean? Sentitu al duzu inoiz? Nola nabaritzen da? Nola adierazten da? Zer egin daiteke sentimendu hori gainditzeko? Eta abar.
- Sentitu dezake segurtasun eza neska batek? Eta mutil batek? Arrazoi edo egoera berberagatik? Berdin adieraziko dute? Zergatik? Zer egin dezake neskak gainditzeko? Eta mutilak? Zergatik? Eta abar.

Proposatzen diren bi dinamika erabiliz **jolasten hasi aurretik**, kartak eta edukiak ondo ezagutzea gomendatzen da: sentimenduak neska eta mutilen multzotan sailkatu, familia bereko edo antzeko sentimenduen arabera sailkatu, aurkakoak aurkitu, ulertzen ez diren hitzak azaldu, marrazkien esanahia argitu, eta abar.

Jolas arauak 1: "Bikoteak"

- Jolasaren helburua (memory antzekoa) hau da: jokalaria guztien artean, aurretik ezarritako txanda kopurua bete baino lehen, **sentimendu guztien neska-mutil bikotea aurkitzea**. Hau da, jokalaria bakoitzak ez du jolasten besteen aurka, baizik eta besteekin elkaturik, guztion artean jarritako erronka gainditzearen alde.
- Jolasean hasi aurretik, **erronka betetzeko txanda kopurua adostu** behar da, beti ere jolasean erabiliko diren baraja kopurua kontuan harturik. Baraja bakoitzeko (18 karta, 9 bikote) 15-16-18 txandekin hasi daiteke, hau da 3 edo 4 karta jokalaria bakoitzeko, hauek 6, 5 edo 4 badira.
- Baraja batekin jolastu daiteke, baina baita ere bi, hiru edo laurekin. Zenbat eta karta eta bikote gehiagorekin jolastu, orduan eta txanda gehiago onartu beharko dira erronka gainditu eta jolasa irabazteko. Adibidez, 60, 55 eta abar.
- Karta guztiak nahastu eta **buruz behera** banatzen dira mahai gainean.
- Eskubiko jokalaria hasiko da bi karta batera altxa eta buelta emanez. **Beti karta biak batera** jaso behar dira.
- Karta biak bikotea osatzen badute, mahaitik ken-tzen dira. Bikotea osatzen ez badute, karta biak berriro bere lekuan utzi behar dira. Edozein kasuan, ondoko jokalariaren txanda izango da.
- Ezarritako txanda kopurua bukatu baino lehen jokalaria guztien artean bikote guztiak jaso eta aurkitzen badituzte, **taldeak jolasaldia irabazi du**. Eta alderantziz, txanda bukatu eta ez badituzte bikote guztiak osatu, erronka galdu dute.



Jolas arauak 2: “Hitzik gabe”

- Jolasaren helburua (tabú antzekoa) hauxe da: jokalaria guztien artean, aurretik ezarritako denbora bete baino lehen, **sentimendu guztiak ezagutzea mimika eta keinuen bitartez**, eta hitzik esan gabe. Hau da, jokalaria bakoitzak ez du besteen aurka jolasten, baizik eta besteekin elkaturik, guztion artean jarritako erronka gainditzearen alde.
- Jolasean hasi aurretik, **erronka betetzeko denbora adostu** behar da, beti ere jolasean erabiliko diren baraja kopurua kontuan harturik. Baraja bakoitzeko (9 sentimendu) 10 minutuko denborarekin hasi daiteke eta denbora jeitsiz joan, gehiago jolasten den arabera.
- Baraja batekin jolastu daiteke, baina baita ere bi, hiru edo laurekin. Karta guztiak nahastu eta multzo bakar batean lagatzen dira mahai gainean.
- Eskubiko jokalaria hasiko da goiko karta hartuz. Hitzik gabe, keinuz, mimikaz eta imitatuz soilik, besteek **zein den tokatu zaion sentimendua asmatzen** saiatuko da.
- Asmatzen badute, karta bistan utziko da, jadanik asmatutakoak zeintzuk diren baieztatu ahal izateko. Ez badute asmatzen, karta behekaldean sartuko da. Edozein kasuan, ondoko jokalaria jolastuko du karta multzoko goiko karta hartuz.
- Ezarritako denbora bukatu baino lehen jokalaria guztien artean sentimendu guztiak asmatzen badituzte, **taldeak jolasaldia irabazi du**. Eta alderantziz, denbora bukatu eta ez badituzte sentimendu guztiak antzeman, taldeak erronka galdu du.

